

## **UDALAK 3,2 MILIOI EURO BANATUKO DITU BILBOKO OSTALARITZA SEKTOREARI BIDERATUTAKO ZUZENEKO LAGUNTZETAN**

- **Alkateak neurria proposatu eta adostu du Udaleko talde guztiekin.**
- **Laguntzak datorren astetik aurrera eskatu ahal izango dira Bilbao Ekintzaren bitartez, abenduaren 31ra arte.**
- **3.255.000 euroak langile kopuruaren arabera hiru bloketan banatuko dira,(1.000, 1.250 edo 1.500 euro) eta Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzei gehitu ahal izango zaizkie.**
- **Bilbon 2.800 ostalaritza-establezimendu daude.**

(*Bilbo, 2020ko abenduaren 3a*).- Juan Mari Aburto Bilboko Alkateak #BilbaoAurrera2020 Planaren 15 milioiko inbertsioari gehituko zaion neurri berri bat proposatu eta adostu du Udaleko talde guztiekin (EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Podemos eta PP).

Egun indarrean dagoen araudia aztertu ondoren, **Bilboko ostalaritzaren azterketa espezifikoa egin da sektorearen ordezkariekin**, laguntza-tresnak indartzeko asmoz.

Zuzeneko laguntzak Udalari propio ez dagokion eremua izan arren, sektoreko enplegua pairatzen ari den konplexutasun larriko egoeraren aurrean, **Alkateak, Gobernu Taldeak eta oposizioko alderdiek ezohiko neurria hartzea erabaki dute gaur: 3.255.000 euro zuzeneko laguntzetan banatzea, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen osagarri.**

Zenbateko hori 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren itxieratik aterako da, hitzemandako ezein kontu-saili eragin gabe.

### **1000 ETA 1.500 EURO BITARTEKO LAGUNTZA ZUZENAK**

Laguntza hauek **3.255.000 €ko** guztizko aurrekontua dute, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzetan oinarritu dira eta hauen osagarri gisa banatuko dituzte establezimenduen artean:

- **1-3 langile dituzten establezimenduak:** 3.000 € Eusko Jaurlaritzak (+ 1.000 € Bilboko Udalak)= Guztira 4.000 €
- **4-10 langile dituzten establezimenduak:** 3.500 € Eusko Jaurlaritzak (+ 1.250 € Bilboko Udalak) = Guztira 4.750 €
- **10 langiletik gorako establezimenduak:** 4.000 € Eusko Jaurlaritzak (+ 1.500 € Bilboko Udalak) = Guztira 5.500 €

## **2.800 ESTABLEZIMENDU BILBON**

Bilbon, jardueren nahiz establezimenduen artean dauden aldeak kontuan hartu gabe, 2.800 establezimendu inguru izan daitezke laguntza-deialdi honen onuradun.

Aldi berean, aintzakotzat hartu behar da establezimendu bakoitzaren langile-kopurua, Eusko Jaurlaritzaren aginduan zehaztutako tarteen arabera. Ildo horretan, aurrekontua honela banatuko litzateke:

- **1-3 langile dituzten establezimenduak:** 1.400 establezimendu kalkulatu dira X 1.000 €/enpresa = Guztira 1.400.000 €
- **4-10 langile dituzten establezimenduak:** 980 establezimendu kalkulatu dira X 1.250 €/enpresa = Guztira 1.225.000 €
- **10 langiletik gorako establezimenduak:** 420 kalkulatu dira X 1.500 €/enpresa = Guztira 630.000 €

## **"BILBAO AURRERA 2020" PLANA**

Joan den 2020ko maiatzaren 7an, Bilboko Udaleko talde politiko guztiek #BilbaoAurrera2020 deritzon Gizarte Kohesiorako, Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko eta Bilboko Kulturaren aldeko Neurrien Plana onartu zuten.

Erantzukizunez jokatzeko, lehentasunak finkatzeko eta egoerara egokitzeko gaitasuna frogatuz, 15 milioi euro bideratu genituen Covid-19ari atxikitako osasun-krisiak pertsonengan, ekonomian eta enpleguan zein kulturaren arloan eragin dituen ondorioak arintzeko.

## **EL AYUNTAMIENTO DESTINA 3,2 MILLONES DE EUROS DE AYUDAS DIRECTAS AL SECTOR DE LA HOSTELERIA DE BILBAO**

- **El Alcalde ha propuesto y consensuado la medida con todos los grupos municipales del Ayuntamiento.**
- **Las ayudas se podrán solicitar desde la semana que viene, a través de Bilbao Ekintza, hasta el 31 de diciembre.**
- **Los 3.255.000 euros se distribuirán en tres bloques, en función del número de empleados (1000, 1250 o 1500 euros), y serán acumulables a las ayudas ofrecidas por el Gobierno Vasco.**
- **En Bilbao hay 2.800 establecimientos de hostelería.**

*(Bilbao, 3 de diciembre de 2020).*- El Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, ha propuesto y consensuado con todos los grupos municipales del Ayuntamiento (EAJ-PNV, PSE-EE, EHBildu, Podemos y PP) una nueva medida que se sumará a los 15 millones de euros del Plan #BilbaoAurrera2020.

Tras un análisis de la normativa actualmente en vigor y con el ánimo de poder fortalecer los instrumentos de ayuda, **se ha realizado, con los representantes del sector, un análisis específico de la hostelería en Bilbao.**

Aún no siendo las ayudas directas un ámbito propiamente municipal, ante la situación de extraordinaria complejidad que afronta el empleo en el sector, **el Alcalde, el Equipo de Gobierno y los partidos de la oposición han acordado en el día de hoy tomar una medida extraordinaria como es la concesión de ayudas directas por valor de 3.255.000 euro, acumulables a las ayudas del Gobierno Vasco.**

Esta cantidad se detraerá del cierre presupuestario del ejercicio 2020, sin perjuicio de ninguna partida ya comprometida.

### **AYUDAS DIRECTAS ENTRE 1000 Y 1500 EUROS**

El planteamiento para adquirir estas ayudas, que asciende a un presupuesto total de **3.255.000 €**, se basa y es complementario a las ayudas del Gobierno Vasco, y se distribuye de la siguiente manera para los establecimientos:

- **De 1-3 personas trabajadoras:** 3.000 € del Gobierno Vasco (+ 1.000 € del Ayuntamiento de Bilbao) = Total 4.000 €
- **De 4-10 personas trabajadoras:** 3.500 € del Gobierno Vasco (+ 1.250 € del Ayuntamiento de Bilbao) = Total 4.750 €

- **De más de 10 personas trabajadoras:** 4.000 € del Gobierno Vasco (+ 1.500 € del Ayuntamiento de Bilbao) = Total 5.500 €

## **2.800 ESTABLECIMIENTOS EN BILBAO**

En Bilbao, si bien hay cierta diferencia entre actividades y establecimientos, podemos estimar un número aproximado de 2.800 establecimientos como potenciales beneficiarios de la convocatoria de ayudas.

Al mismo tiempo, hay que considerar el número de personas trabajadoras según los intervalos definidos en la orden del Gobierno Vasco. La estimación del alcance presupuestario quedaría como sigue:

- **Establecimientos con 1-3 personas trabajadoras:** 1.400 establecimientos estimados X 1.000 €/empresa = Total 1.400.000 €
- **Establecimientos de 4-10 personas trabajadoras:** 980 establecimientos estimados X 1.250 €/empresa = Total 1.225.000 €
- **Establecimientos de más de 10 personas trabajadoras:** 420 establecimientos estimados X 1.500 €/empresa = Total 630.000 €

## **PLAN “BILBAO AURRERA 2020”**

El pasado 7 de mayo de 2020, todos los grupos políticos del Ayuntamiento de Bilbao aprobaron el Plan #BilbaoAurrera2020, un conjunto de medidas para la Cohesión Social, la Reactivación Económica y del Empleo y la Cultura de Bilbao.

En un ejercicio de responsabilidad, priorización y capacidad de adaptación destinamos 15 millones de euros para paliar los efectos que la crisis sanitaria motivada por la Covid-19 estaba teniendo en las personas, en el ámbito económico y del empleo y en la cultura.